



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteei edo erakundeei, edo pertsona fisikoei, 2018rako diru-laguntzak norgehiagoka araubidez emateko deialdia.

1. Helburua.
2. Eskaerak.
3. Instrukzioa eta proposamena.
4. Hautapen eta balorazio irizpideak.
5. Ebazteko eta jakinarazteko epea.
6. Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea.
7. Diru-laguntzaren zenbatekoa.
8. Diru-laguntzen abonua eta aurrerakinak
9. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.
10. Publizitatea.
11. Diruz laguntzeko gastuak.
12. Araudia.
13. Errekurtsoak.

1. Helburua

Deialdi honen helburua da programak sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko Tolosako politikaren, ekonomiaren eta gizartearen esparru guztietan.

Informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzeko balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea.

2. Eskaerak

Diru-laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte beren jardueraren zati nagusia Tolosan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakunde guztiek eta pertsona fisikoei, beti ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasun alorrean lan egiten badute.

Diru-laguntzen onuradun izateko, elkarte eta fundazioek legez eratuta eta dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute.



TOLOSAKO
UDALA

Inprimakiak osorik (www.tolosa.eus) eta ongi beteta UDATEn aurkeztu beharko dira 20 egun naturaleko epean, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita:

Udate: astelehenetik ostiralera 7:15etik 14:15era.

Hauetz gainera, beste modu hauetan ere aurkeztu ahal izango dira:

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, eta 39/2015 legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan.
- b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- c) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- d) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

Eskarek Berdintasun Departamentuaren oinarri berezietan ezarritako betebeharrak beteko dituzte.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

3. Instrukzioa eta proposamena

Tolosako Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da instrukzioa eta proposamena.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Berdintasun teknikaria.
- Balioespen Batzordea: Berdintasun Batzordea.
- Ebazpena: Alkatetza.

4. Hautapen eta balorazio irizpideak

Egitasmoen puntuazioa eta laguntzaren kopurua kalkulatzeko erabiliko diren irizpideak hemen daude jasota: Tolosako Udalak Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteei edo erakundeei, edo pertsona fisikoek diru-laguntzak emateko oinarri berezien 5. puntua,

5. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen-proposamena egin aurretik, urriaren 1eko 39/2015 legearen 41. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea



TOLOSAKO
UDALA

beteko da; dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Eskariak ebazteko gehienez 6 hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako berariazko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.

Ebazpenak Administrazio bidea amaituko du.

Interesatuei erabakiaren berri emango zaie, urriaren 1eko 39/2015 legearen 82. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Emandako diru-laguntzen argitalpena egingo du Udalak, 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea

Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean eta Berdintasun Departamentuaren Oinarri Berezietan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta 2018ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua izeneko modalitatea erabiliko da. Halako kantitate bat ere onar daiteke zeharkako gastu subentzionagarritzat (gehienez ere programa edo jardueraren aurrekontuaren %5ekoa), baldin eta erakunde onuradunaren administrazio kostu orokorren parte bat programari edo jarduerari egotzi ahal bazaio modu egiaztagarrian.

Justifikazio-kontuak, gutxienez, jarraian zehazten den informazioa jasoko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.

2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituen:

a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.

b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.

- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.

7. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka bidez egingo da.

8. Diru-laguntzen abonua eta aurrerakinak

Diru-laguntzen abonua Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da.

%75eko ordainketa aurreratuak egin ahalko dira, interesatuak hala nahiko balu, justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, diru-laguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Nolanahi ere, geldituko den %25aren abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da.

Justifikazioaren garaian, aurreratutako kopurua gehiegizkoa izan dela ondorioztatzen bada, kopuruaren zati bat edo osoa itzuli beharko dute, dagokion berandutze-interesekin.

9. Zuzkidura eta aurrekontuko partida

Diru-laguntzak ondorengo ataletan oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atal horietako bakoitzak gehienezko kopuru hauek izango ditu:

— Partida: 1400.481.01.23160 - 2018

— Berdintasunerako jardueretarako diru-laguntzak: 6.000,00€.

10. Publizitatea

Diru-laguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta erdaraz.

Tolosako Udaleko Berdintasun Departamentuak zehaztuko du kasu bakoitzean zein neurri hartu behar diren programa edo jarduerak jasotako finantziario publikoaren berri emateko, eta kasu bakoitzean zehaztuko ditu zein izango diren euskarriak, kopurua, publizitate agerraldiaren tamaina edo forma.

Esaldi hau txertatu beharko da: "Tolosako Udalak diruz lagundutako jarduera". Eta Tolosako logoa azaldu beharko da euskarri guztietan: https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/tolosa-logotipoa-bertikala_3.pdf

11. Diruz laguntzeko gastuak

Jarduerekin zerikusi zuzena duten gastuak lagunduko dira.

Finantza gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazioeko espezifikoak diruz laguntzekoak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira.

12. Araudia

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira:

- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*).
- Tolosako Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea. 2017ko apirilaren 25ean onartua eta 2017ko uztailaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.
- Eta Berdintasun Departamentuaren oinarri bereziak *2017ko apirilaren 25ean onartuak eta 2017ko uztailaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.*

13. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.